

131. FITXA **Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntza-programa**

Nori zuzendua: kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerrak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera.

Sarbide-esteka: [Energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntza-programa - EVE](#)

Erreferentziazko araudia: [EBAZPENA, 2025eko apirilaren 11koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, energia berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzen, deialdia egiten eta argitaratzen dituen](#)

Eremuak: Energia eraginkortasuna

Zenbatekoa: 80.000.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2026/09/30 edo aurrekontua agortu arte

Laburpena

EAEEn energia berriztagarri elektrikoen hedapena sustatze aldera, programa honen xedea da **energia berriztagarrien bidez autokontsumorako elektrizitatea sortzeko eta kontsumo termikoak elektrifikatzeko jarduketak egitea**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Jarraian zerrendatzen direnak izango dira jarduketa subentzionagarriak, eta, EAEEn egikarituta egoteaz gain, I. eranskinean bakoitzerako ezarritako betekizunak bete beharko dituzte:

- 1. lerroa: **Energia-iturri berriztagarrien bidez autokontsumorako energia elektrikoa sortzeko instalazioak** egiteko inbertsioak

- 2. lerroa: **Energia-iturri berriztagarrien bidez kontsumo termikoak elektrifikatzeko instalazioak** egiteko inbertsioak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

1. lerroa:

- Ekipo eta materialetan inbertitzea (biltegitratzea barne).
- Obrak eta instalazioak egikaritzea.
- Ekipamendu elektromekanikoak, kontrolekoak eta osagarriak.
- Goi, Erdi eta Behe Tentsioko sistema elektriko orokorra, transformadoreak, ebakuazio-lineak.
- BTEE eta GTIE motako babes elektrikoak.
- Monitorizazio-sistemak (sortzea, biltegitratzea eta eskatzea).
- Erlazionatutako obra zibilak (estalkia indartzea edo zati proportzionala ordeztzea barne).
- Eraikuntzak, zangak, kanalizazioak, barne-zortasuneko bideak, plataformak.
- Zaharberritzea eta ingurumen-neurriak.
- Proiektu edo memoria teknikoen idazkuntza.
- Zuzendaritza fakultatiboa.
- Segurtasuna eta Osasuna koordinatzea.
- Estalkietan amiantoaren kentzea.
- Hondakinen kudeaketa.
- Aparkalekuei dagokien markesinen egiturak (FV instalatzen bada).
- Beharrezko gisa justifikatzen diren beste partida batzuk.

2. lerroa:

- Ekipo eta materialetan inbertitzea (biltegitratzea barne).
- Obrak eta instalazioak egikaritzea.
- Ekipamendu elektromekanikoak, hidraulikoak, kontrolekoak eta osagarriak.
- Kudeaketa, kontrol eta monitorizazio-sistemak (sortzea eta biltegitratzea).
- Esplorazio-zundaketak eta Erantzun Termikoko Testen entseguak (geotermia).
- Obra zibilak: lotutako hondeaketak, kanalizazioak eta tutueriak.
- Klimatizazioaren barne-banaketa (zoru erradiatzailea, fan coil-ak, etab.).
- Kokalekuan dauden instalazioen desegitea.
- Proiektu edo memoria teknikoen idazkuntza.
- Zuzendaritza fakultatiboa.
- Segurtasuna eta Osasuna koordinatzea.
- Hondakinen kudeaketa.
- Beharrezko gisa justifikatzen diren beste partida batzuk.

Gastuetarako aldi hautagarria

Eskabidea aurkeztu eta gehienez ere **hamabi (12) hilabeteko epea izango da**, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita, eta, gehienez ere **2027ko abenduaren 30a arte**.